

OINARRIAK

Ermuko Udalak, Udal Liburutegiaren bitartez, **haurrentzako I Komiki Lehiaketa** deituko du irakurketa eta narrazio-genero horren sormena sustatzeko urteko bere kanpainaren baitan.

Lehiaketaren oinarriak ondokoak dira:

Partaideak

Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle ermuarrek parte hartu ahal izango dute. Parte-hartzea bakarkakoa izango da eta partaide bakoitzak lan bana aurkeztu ahal izango du.

Kategoriak:

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak
Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak
Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle

Gaia eta formatua

Gaia librea izango da. Pertsonaia protagonistak eta istorioa originala, norberak sortua eta inoiz argitaragabea izango dira. Ez da pertsona errealen izen-abizenik apatuko, ez eta eduki biolentoa, sexista, arrazista edota nolabaiteko bizikidetza intolerantea eragiten duenik.

Teknika ere librea izango da, eta lanak zuri-beltzean edota koloretan aurkeztu ahalko dira.

Lanak A-04 tamainako orrialde bat edo bitako luzera izango du. Paperean aurkeztu beharko dira.

Hizkuntza

Lanak euskaraz, gaztelaniaz edo testurik gabe aurkeztu ahalko dira.

Aurkezteko modua

Lana **gutun-azal handi** baten sartuta aurkeztuko da, obraren titulua bakarrik idatzita ez duela. Lanean ez da egilearen izenik edota identifikatu dezakeen beste daturik azalduko.

Gutun-azal handi horretan beste **gutunazal txikiago bat** sartuko da titulu berarekin. Gutun-azala txikiaren barruan ondoko datuak jasoko dira:

- Egilearen izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta ikastetxea.

Aurkezteko tokia eta epea

Lanak eskuan aurkeztu beharko dira Udal Liburutegian (Goienkale z/g).

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:30etik-20:30era.

Aurkezteko epea martxoaren 1etik apirilaren 5era joango da.

Sariak

Hiru sari berdin emango dira, bat kategoria bakoitzeko: marrazteko materiala irabazlearentzat eta komiki sorta bat ikastetxearentzat.

Sari-banaketa

Sariak apirilaren azken astean banatuko dira.

Lanen jabetza

Irabazleek Udal Liburutegiari lagako diote lana argitaratzeko eskubidea, egokitzen jotzen dituen bitarteko eta formatuetan.

2020ko martxotik aurrera egileek askatasun osoa izango dute lanak komenigarri iruditzen zaien moduan erabiltzeko.

Epaimahaia

Epaimahaia Udal Liburutegiko langileek eta Martín Azpilikueta eta Kike Infame komiki-adituek eratuko dute.

Aurkeztutako lanak

Sariak banatzen direnetik aurrera partaideek 15 eguneko epea izango dute lanak berreskuratzeko, bestela Liburutegiak deuseztatu egingo ditu.

Besterik

Honako lehiaketan parte hartzeak oinarriok onartzea dakar. Lehiaketa ondo joan dadin, antolatzaileek nahi beste aldaketa egin ahal izango dituzte.